

Miarritzeko faroa

JEAN LOUIS DAVANT



KANBOKO ikastola heritik urrindu eta haizatu nahi du horko Udalak. Gularik ez dio emango Kontseiluak. Horrela erabaki du gehiengoak. Euskara eta euskaldungoa hein hortaraino astiatzen dituzten jendeak baditugu beraz gutartean. Eta ez daude bakarrik Kanbon zoritxarrez. Konprenitzera ensaiatzen naiz eta arrazoin nagusien artean bat nabaria ikusten dut: gure hautetsi askoren baitan, kulturarik eza. Lehenago udaletan baziren jaunak eta baziren laborariak. Kultura klasiko bat ezagutu bazuten lehenek eta kultura herrikoi bat bigarrenek. Orain klase berri bat ikusten da hor neholako kulturarik ez duena. Aberats edo erdi aberats berri frango badago gutartean dirua bakarrik ezagutzen ez duena. Kultura guztia zaio arrotz eta beraz etsai. Baina berri txarra jakin dugun egun berean hedatu da berri ona: Ikastola gain ginetik lagunduko duela Miarritzeko Udalak. Arrai Euskal Herri barnea ere argituko digu Miarritzeko faroak, dinosauro berriak haizatzuz eta urrinduz, edo agian konbertituz.

1990eko euskal liburugintza (3)

JOAN MARI TORREALDAI



1990EKO produkzioan, 828 titulu horietatik erdia baino gutxiago da euskaraz sortuberrria, % 45,5 zehazki; % 36,7 euskaratua da; eta % 16,5 berriz argitaratua. Liburu zaharrak eta berriak daude hemen kontaturik. Berriak bakarrik aintzat hartuz, hau da, iaz lehen-dabizikoz argitara emanak, euskaraz sorturiko liburuak % 60 osatzen du, eta itzulitakoak % 40.

Baina zer esan nahi dute zifra, zenbaki eta kopuru hauek? Ez da samurra hori dena esplikatzea. Bi ohar osagarri bakarrik egingo dut.

Bateko, urtea joan eta urtea etorri, liburu itzuliaren pisua gero eta handiagoa dela. Hau da, liburugintzaren hazkuntza orokorrak geroz eta gehiago zor diola liburu itzuliari. Euskal liburu sortuberrria ere haziz doa, baina ez proportzio berean. Martxa handiagoa du liburu itzuliak.

Eta besteko, «euskal liburu/liburu itzuli» dialektika horretan tamaina onean al gaude? Ez dago aurrez erabakirik tamaina egokirik, harekin gurea neurtzeko. Estatu espainiarreko produkzioarekin alderatuz, produkzio propioan behetik gabiltza eta itzulpenean goitik. Eta?

Bide onetik goazen ala ez, nola erabaki? Tamaina egokian gauden ala ez, nork ebatz? Normala iruditzen zait, hori bai, bai liburu itzuliaren hazkunde azkarra, eta bai gurean kultura hazietan baino proportzionalki pisu handiagoa izatea itzulpenean. Aitortu beharra bait dago Euskal Herriaren tamainako herri batetan gure sorkuntz ahalmenak herri handietan baino mugatuagoak direla. Eta horixe da, beste askoren artean, itzulpenean proportzio altuak adierazten duena.

• DEIA

Lehen «martxa» orain «ttipi-ttapa»

Eta ez dute orduan bezala «amnistiarik ez da negoziatzen» oihu harrorik eginen, «Presoak Euskadira» xotila baizik. Ez da asko eskatzea. Bidezkoa eta zuzena da, gainera. Baina hori ere ez dute lortuko, «ttipi-ttapa»lariak bakarrik geratzen ari bait dira. Historia honen hasiera ezagutu ez zuten gazte gehienek, berriz, beste edozein gaiztagin eta hiltzaitletatik ez dituzte bereizten. Eta gero eta gazte euskaldun gehiagori entzuten zaio: «dauden lekuan ongi daude». Pobreak poltsak korapiloak baino giltza gehiago izango dituzte laster espetxeek.

M. ATXAGA / 1991-VI-29

• EL DIARIO VASCO

«Corcuera legearen» mordoiloa

Hiritarren Seguritasunaren legegaren proiektuan gehien errepikatzen den esamoldea honako hau da, alegia, Estatuko segurtasun indarrak eta gorputzak hau



EL PERICH / NAVARRA HOY / 91-VI-29

eta hura egin ahal izango dutala, ia dena. Galdetu zaionean zein ondorio izan litzakeen Poliziaren esku egoteak, orbitatik kanpo horrelako ahalmen aukerakoak, Corcuera ministroak soilik honako hau esan zuen «polizien erregimen diziplinario gogorra» bermea da, eragozpena. Ministroak, dirudenez, ez zekien taututako edozein arauk berarekin dakarrela boterearen murrizketa eta mugaketa zorrotza. Ez zekien ere, dirudinez, Nazio Batuen Erakundearen azkenengo txostenean, giza eskubideei buruz herri desberdinek duten indizeekin, Espainia Europako beste herri guztien atzean agertu zela —Papura-Ginea Berria—, zeroko sailkapenarekin Poliziaren kontro-

lari dagokion sailean, mota guztietako gehiegikeriak ekiditeko.

J.N. ESTEVAN / 1991-VI-29

• EL CORREO ESPAÑOL

Aintzinako etsaiak

Arazo handiena minoriak eta beraien segurtasuna da. Kroazian minoria serbiarrak ulertu zuen zer etor zekiokkeen, Zagrebek aintzinako enblema faxistak berpiztu zituen bere lanpostuetatik, Poliziadibidez. Kroaziarrak, beren aldetik, izaera faxistako indar paramilitarra sortu zuten. Ukabilak eta pistolen dialektikara itzultzea da. Serbia, zentralista, izan da

blokeoen gerra lehertarazi duena, beste errepubliketako enpresetako kontuak eta ...zergen obligazio bat konfiskatu duena besteentzako. Ezin da ahaztu errepublika desberdinetan komunikabideen arteko batailak eragindako biolentzia maila. Markoviceko kanaleari boikota egin zaio. Arrazoiaren garrasi bakara gorrotoen ozeanoan.

M.LEGUINECHE / 1991-VI-29

• EL MUNDO

Sektarismo eta kriminalizazioez

Abertzaleok aspaldidanik eskatzen ari gara da Euskal Herriari utz diezaiotela erabakitzen gure kabuz, garbi eta amarrurik gabe, Espainiako (eta Frantziako) probintzia, kolonia edo «protektoradutza» izan nahi dugun, edo aldez, sibiranoetasun politiko osora iritsi nahi dugun eta geure Estatu propioa sortu. Utz diezagutela oinarrizko eskubide demokratikoa gauzatzen, autodeterminazio eskubidea eta orduan posible izango duzue botoa Espainia bakarra, handia eta librean ematea, eta guk Euskal Herri bateratuan, askoz txikiagoa, baina askoz libreagoa. Eta kito, ez?

J.AGUSTIN ARRIETA / 1991-VI-29

ZUZENDARIARI

Alkate jaunari

Idazki honen bidez, Tolosako presoeren senitartekook pasa berriak diren San Juan jai hauetan gertaturiko zenbait jarrera salatu nahi dugu.

Lehenengo hilaren 21ean gertatu zen, San Frantzisko ibiltokiko galtzadan «Presoak etxera, Amnistia» zioen pintaketa bat egitera gindoazenean. Aipaturiko pintada hau, goizean Udaltzaingoaren laguntzaz eginiko «Kutxa» hitza eta bere zigilua agertzen ziren beste pintaketa batzuren ondoren zetorren, eta, ezin utzi esan gabe, azken hauek askoz ere handiagoak zirela.

Lan honetan genbiltzala, Ertzaintzaren hiru dotazio azaldu ziren, geure ekintzan oztopatu zigutelarik. Euren betebeharra, Tolosako familia askok pairatzen dugun errealtate negargarria ezkutatzeara, eta antza denez, euren nagusiak ez dira ohartzen arazo hau alboratzen dugun heinean denok espero dugun irtenbide pozgarria urruntzen ari garela.

Kutxa bezain aberats eta indartsu denak pintaketak lasai-lasai egin dituzte, eta guk, geure seme-alabengatik eginen ditugularik, Tolosako semeak

direla ahaztu gabe, Ertzaintzaren oztopoa jasan behar dugu. Joxe Gurrutxaga alkate jauna, zergatik? Dirudunek bakarrik al dute horretarako eskubidea? Beraz, batzuk bai eta besteok ez? Zergatik agindu duzu zeloz itsatsita zeuden 513 euskal presoeren argazkiak zeramatzen bost kartelak kentzea? Haien presentzia jasangaitza al zaizu, alkate jauna, haien argazkiak, haien aurpegiak?

Zeuk, alkate jauna, ongi asko dakizu geure egoera «tabua» dela komunikabide handi orotan. Ongi asko dakizu kalea dela geure presoek eta guk, senideak garenez, pairatzen dugun egoera azaltzeko bide bakarra. Eskubide hau ere ukatu nahi al diguzu?

Festetan, inork ez du atseginenez entzuten geure familien tragediak bezalakorik, baina guk ez ditugu aukeratu; ez al dira bada egiazkoak? Inoiz pentsatu al duzu, aurrekurako edota Arramelerako bidean zoazenean, tolosarren bat izanen dela Alicante, Zamora edo Cordobarako bidean? Bidai luze hauek gutxienez bi egun behar dituztenez, jai egun hauetaz baliatu behar izaten dugu.

Zer egingen zenuke zuk, al-

kate jauna, semeren bat espetxean bazenu, isilik geratuko al zinazteke besoak gurutzaturik? Eta herriko jaietan, haren falta nabariagoa denean?

Agian, zeure jarrera gogorragoa da, zeure bulego urrutetik agintzen duzulako, baina jakizu, senideon argumentuen aurrean ertzainak isilik geratu zirela. Zenbaitzuk 10 urte daramatzagu San Juanak geure seme-alabekin ospatu gabe, berbenarik edo su gainetik saltatu egiteko aukerarik gabe gazetetasun ihes eginen diela ikustean etsiturik. Hain burugabea al deritzozu geure jarrerari?

Halere, geure egoera ahaztu gabe, ahalik eta alaien parte hartzen dugu festa hauetan. Joxe Gurrutxaga jauna, ez saiatu adierazpen bide guztiak hersten, geure semeak defendatzeko zeu baino ausartagoak bait gara.

Zeuk ere egizu lan Tolosako presoek hurrengo San Juan eguna behar duten lekuan ospa dezaten, hots, heuren senideartean, euren etxeetan eta hain maitea duten Tolosan.

PRESO POLITIKOEN
SENITARTEKOAK
TOLOSA

PERTSONAIA



Juan Carlos I

Errege jarri eta agintzen ez zinen hasi jo ta su ta zure orde jarri ziranak denbora pasan dauzkazu ohartu eta egin dituzu hortaz zenbait amenazu izen ta izan Espainiako erregea bazera zu belarrondoko bana emanda errespetoa jar zazu.

JOKIN SOROZABAL

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZTEN ETXEZAHARRETA
INAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11